

ANALISIA



Gerretako ikusezinak



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Ahotsak: Hernaniko emakumeen testigantzak dokumentala lehen aldiz ikusteko aukera izan genuen joan den astean. Jadanik ezaguna zaigun Ahotsak.eus proiektuak sarean eskura utzi digun ondaretik abiatuta, Beñat Iturrioz zinegileak historia ikusezin hori bildu eta emakumeek garai zailenetan izandako paper garrantzitsua agerian utzi du. Hernaniko Udalak “andreen iragan biziak” antolatutako ekimenaren baitan egin zen emanaldia, eta horren aurretik emakumeek lan munduan izandako esperientziak ere errepasatu genituen hainbat ikerketaren bidez.

Ondorioa garbia da: teoriak eta botereak “osagarri” jotzen dituen horiek, praktikan giltzarri (izan) dira jendartearen biziraupenerako. “Emakumeak ez zuen firmarik, baina buruarekin egiten zuen lan” zioen pantailako amona batek irribarrea galdu gabe. Gerra osteko unetik gogorrenetan ere, estraperloan edo merkatuan erakutsi zuten adorea ikaragarria da, triskantzari aurre egin zioten “makina bat arrasta eginda”.

Eta triskantzari aurre egiten segitzen dute belaunaldiz belaunaldi, transmisioaren txirikordari esker. Abenduaren 16an Euskal Herriko mugimendu

feministak martxa antimilitarista egin zuen Santurtzin, Bilboko Porturaino. Han zamatzen dituzte itsasontziak hileroko Ekialde Hurbileko gerretan erabilitako armaz. Antolatzaileek nabarmendu zuten feminismoa historian zehar gerraren kontrako agente aktibo izan dela. Beharko, emakumeen gorputzak baitira patriarkatuak inposatutako indarkeria horren “lehen harrapakinak”. Lagun mordoa bildu da Santurtziko kaito lotsaren harresian kateatuta, salatzeke Euskal Herrian duela 80 urte bezala gaur Siria edo Yemengo gerretan emakumeak ikusezinak direla eta “biktimaren rola” dutela.

Frontearen atzealdeko sufrimenduari, baina, ertzekoek egunerokoan aurre egin ohi diete jarrera indartsu batekin: umoreaz. *Ahotsak* dokumentalean, dozenaka urte eta mila bizipen soinean dituzten azal gogorreko emakume horiek gosea, debekuak eta oztopoak gogoratzen dituzte, ez biktimaren malkoekin, baizik eta patuari ziria sartu dionaren konbentzimenduz. Eta seguru Alepoko kale horretan zutik geratu diren lau etxeen artean belarria jarriz gero, algara bat entzungo duzula, gaurkoengandik eta gerokoentzat.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gauzaki izateari utzi, pertsonak izateko



Juan Mari Arregi

Joan den astean albiste politiko garrantzitsua jazo zen Espainiako Estatuan. *El País* egunkariak honela zioen: “Animaliak gauzaki izateari utziko diote”. Hala da. Espainiako Kongresuak aho batez onartu zuen PPren lege proposamena animaliak pasa daitezen gauzaki kontsideratuzetik izaki bizidun moduan tratatzera, eta eskubideak edukitzea. Horretarako Kode Zibila aldatu beharko da, baita Hipoteken eta Prozedura Zibilen Legea ere. PPren arabera “paradoxikoa da Kode Penalak 2003tik ezberdintzea gauzei egiten zaizkien kalteak eta animaliei egiten zaizkienak, baina Kode Zibilak ez onartzea animaliak sentsibilitatea duten izaki bizidunak direla”.

Sektore animalistak pozik dira, eta ea “sentsibilitate” horrek eramaten duen Kongresua, esaterako, odola heriotzara arte isurtzen den zezenketak debekatzea. Animaliekiko sentsibilitateak, bestalde, isla izan beharko luke beste izaki bizidun batzueganako arduran, gure jendartea osatzen dutenenganakoa hain zuzen. Hor daude milioika langabetuak; dozenaka mila langile 707 euroko gutxieneko soldatara iristen ez direnak; 408 euro eskas kobratu eta urtean %0,25eko igoerarekin biziraun behar duten pentsionista eta alargunak; hor daude milaka immigrante, txabola eta aterpeetan pilotuta; eta jendeari libreki ibiltzen uzten ez dioten harresiak; emakume eta gizonen arteko ezberdintasun lotsagarria ere hor dago, soldatetan nahiz gizarteko beste arlo askotan; milaka lagun daude gaixo eta medikazio egoki baterako laguntzarik gabe...

Pertsona horiek, gauzakiak edo izaki “sentikorak” dira? Horiek ere eskubideak dituzten subjektuak bada, beste gobernu-politika batzuk behar dituzte euren beharrak modu egokian asetzeko. Gauzaki izatetik, pertsona izateko.